


Zebarri

ETXEBARRIKO EUSKALTEGIKO IKASLEEK EGINA
2007-08ko NEGUA



Ale honetan:

- Hurbildu Etxebarrira
- Aspaldiko Etxebarri
- Azaroaren 25a
Emakumeen kontrako
indarkeria gaitzesteko eguna
- Gabonak
- Euskal Mitologia
eta abar...

HASI EUSKARA IKASTEN URTE BERRIAREKIN BATERA
EMPIEZA A ESTUDIAR EUSKERA CON EL NUEVO AÑO



ULIBARRI
EUSKALTEGIA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saia
Departamento de Cultura





HURBILDU ETXEBARRIRA

Etxebarriko Udalako unitate didaktiko bat argitaratu berri du, Labairu Ikastegiak eginak eta "Hurbildu Etxebarrira" izenpean. Lan hori iaz egindako "Etxebarriko Toponimia" liburuari jarraipena emateko asmoarekin egin da. Liburu horretan agertzen den edukia osatzeko eta liburu bera baliagarria izan dadin DVD interaktibo bat ere prestatu dute. Hainbat dira jorratzen diren gaiak; hala nola, Etxebarriko historia, geografia, eraikinik adierazgarrienak, biztanleen testigantzak, argazkiak eta horiekin guztiekin lotuta dauden bestelako xehetasunak..

Aipatzekoa da euskara lantzea ere badela lan horren asmoa. Horrexegatik DVDan biztanleen hitzetan izan dezakegu Etxebarriko euskararen berri; hain zuzen ere, Joseba Perezek 1999an herriko hainbat euskaldun zaharri egin zizkion


grabaketan bidez.

Liburu haurrentzat ez ezik helduentzat ere bideratuta dago. Herriko gazteak Etxebarriko xehetasunez jabe daitezen ikastetxeetan landuko dira unitate horretan agertzen diren hainbat gai.

Liburuarekin batera banatzen den DVDan, bai multimedia ariketak, bai entzumenak erabil daitezke gure herria ezagutarazteko xedearekin.

Zer esanik ez, herriko jendearen jarrera eskuzabalari esker izan da posiblea egitasmo hau prestatzea.

Liburu ez da salgai jarriko, baina ikastetxeetan landu ahal izango da ikasleei banatuko zaielako. Ale bana emango zaie Haur Hezkuntzan zein Lehen Hezkuntzan dauden ikasleei. Baita Etxebarrikoak diren DBHko ikasleei ere.





UNITATE DIDAKTIKOA

Haur Hezkuntzako materialari dagokionez, irakasleen laguntza ezinbestekoa da umeei kontzeptuez jabe daitezen. Irakurtzeko zailtasunik izan ez ditzaten oso testu gutxi agertzen da lehenengo atal horretan, helburua argazkiak identifikatzea baita.

Lehen Hezkuntzari eskainitako zatian atalka antolatu da informazioa, eta ingurune fisikoa identifikatzeak garrantzi handia du guztietan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako atala landuagoa da eta ariketak, jakina, zailagoak.

Hiru atal horietan proposatzen da herritik txango bat egitea liburuan agertzen dena zuzenean ezagutzeko eta aztertzeko.

Oraingo banaketa honetan 800 ale argitaratu dira.

Idoia Alzibar, hain zuzen ere, liburuaren egilea, ikastetxez ikastetxe pasatuko da gabonak eta gero eta irakasleekin jardungo du material hori nola erabili behar den azaltzen. Gero ikastetxe eta irakasle bakoitzak erabakiko du nola landu nahi duen material hori. Horretaz gain, ikasle bakoitzak bere liburua izango duenez, etxean ere aukera izango dute material didaktiko hori lantzeko gurasoekin.

Euskaltegian ere oso aproposa da liburua edukiak lantzeko eta oraindik gure herriaz ezagutzen ditugun gauza asko ikasteko.





ASPALDIKO ETXEBARRI



Etxebarri asko aldatu da. Etxe berri asko egin dituzte eta egiten ari dira oraindik. Dena da berria. Desagertu da betiko jendearen oroimenean dagoen lehengo Etxebarri. Baserri eta etxe asko edo gehienak dagoeneko ez daude, ortuak ere ez.

Ondoko lerro hauetan aspaldiko Etxebarri hori gogoratuko dugu eta

horretarako leku adierazgarrienak eta bitxikeria batzuk aipatuko ditugu.

Gaur egun harrigarria badirudi ere, lehen jendeak ibaian bainua hartzen zuen. "Bokete" ingurura eta eliza ondoko makaldira jende asko etortzen zen Basauritik, Galdakaotik...egun pasa egitera. Ura garbi zegoen eta izugarri gozatzen zuen jendeak bertan. Ume txikientzat kalatxo moduko bat egiten zen.

Erdigunera joanda, nola ez dugu aipatuko Udaletxe zaharra! Oso handia zen, goiko partera eta erdira begira erlojua ikusten zen. Oso eraikin dotorea gure lehengo Udaletxea. Barruan, sarreran eskailera handi eta ilunak zeuden. Kanpoan, beheko partean taberna bat zegoen eta bertan arratsaldez "guatequeak" egiten ziren herriko gazteek dantzatzeko.

Dantzatzeaz ari garela gogoratu etxebarritar nagusiek oso gogoan izango dituzten aspaldian egiten ziren erromeriak. Bizkaia osotik etortzen zen jendea dantzatzera eta elkar ezagutzera. Zenbat bikote egin ote ziren garai hartan?



Aisialdia pasatzeko ere zinema zegoen, "Quimica" deitutako auzoan. Bertan kimika lantegi bat zegoelako herritarrek horrela deitzen diote kale horri.

Kirol instalazioei dagokienez, egungo Patxi Bengoa plazan, lehengo futbol zelaia kokatzen zen, eta ondoan saskibaloia kantxa bat, bertan herriko umeek "inkean" jolasten zuten. Hortik inguruan aipatzekoa da ziega bat zegoela, beti hutsik egoten omen zena. Umeek gustuko zuten hara hurbiltzea. Eta egungo frontoiaren leku berean antzinako frontoi irekia. Txapelketa ugari egiten zen, pilota zaletasuna oso handia baitzen. Eskolako haurrek ere, atsedenaldiaren orduan bertara jolastera joaten ziren, eskola ondo-ondoan zegoen eta, "CIME" dena zen.

Udaletxearen aurrean Santa Ana ermita kokatuta zegoen, Amezola etxetik hurbil. Oso garrantzitsua zen etxebarritarrentzat, horregatik bota zutenean atsekabe handia izan zuten.



Hauxe izan da aspaldiko Etxebarri buruz egin dugun errepaso xumea. Luze hitz egin ahal da gure herriaz, baina gehiago jakin nahi baduzue, modurik onena bertako jendeari galdetzea litzateke.





AZAROAREN 25a

Azaroaren 25a, guztiz sozializatua dagoen eguna dugu, emakumeon eskubideen urraketa irudikatzen duen beste egun bat. Lan eta ardura handiko udal instituzioek, ikastetxe, alderdi politiko eta orotariko erakundeek bakoitzak bere ikuspegitik begiratu diote emakumeon kontrako indarkeriari. Batzuek asmatuko dute, baina gehienei erraz ahaztuko zaie aipatzea indarkeria honen zergatia jendartearen eremu guztietan askotariko intentsitatearekin ematen dela; hau da, emakumeon kontrako indarkeria arazo estrukturala dela. Eta, nola ez, egun hori pasata ere lan izugarria dagoela egiteko.

Indarkeriaren inguruan mugimendu feministatik ere ez da ezer berria esango, esan beharreko guztia esanda baitago. Egun, gai honekiko dugun lan nagusia da, erantzuna eta prebentzioa lantzeaz gain, indarkeria txoko eta momentu guztietan gertatzen dela eta jendartean dugun eredu patriarkalak eragiten duela gogoratzea.

Izan ere, eraso sexistak, bortxaketak, sexu jazarpena, tratu txarrak... ez dira pobreen gaitza, ez dituzte ikasketa gabeko pertsonak eragiten edota jasotzen soilik, ez da kultura jakin batean kokatutako gaitza, ez dira etxean, lantokian edo festetan bakarrik gertatzen. Sexuen arteko desberdintasunek eragiten duten indarkeria fisiko zein psikikoa dira, eta edonork -- emakume gazte, heldu edo adindu izan-- edozein momentutan paira ditzake. Sistemak, sexuen arteko harreman hierarkikoak sustatuz, emakumea mendekotasun eta otzantasun egoeran mantentzeko erabiltzen duen tresnak dira; era berean, haren adierazgarririk bortitzenetako bat.


Behin emakumeon kontrako indarkeria kontzeptua ondo kokatuta, horren inguruan har ditzakegun

jarrerari eta neurriei dagozkien hainbat adibide eta eredu har ditzakegu kontuan. Baina oraingoan ere argi ikus dezakegu erantzun erreala eman beharko luketen instituzioak ez direla arazo larri honi beharrezko garrantzia eta integralitatea ematen ari. Beraz, emakumeok, indarkeria sexista zuzenean bizi dugunok, aurre egiteko neurriak hartu beharko ditugu.

Geure artean jarrerak aldatu, eta kalean, kartzelan, etxean, lantokian, lagunartean... nahikoa pairatu dugula ozenki esateko ordua da. Indibidualki hartutako erabaki bat izan badaiteke ere, emakumeok kolektiboki erantzun dezakegula sinetsi eta autoestimutik abiatuta autodefentsarako neurriak zehaztu ditzakegu. Izan ere, hainbat neurri eta lege planteatu dira, baina bat bera ere ez da indarkeria amaitzen ari; gertatu ondoren, adabakiak jarri, eta eskuak buru gainera eramaten badituzte ere erakunde guztiek, gertakari isolatua bailitzan. Neurri eta legeok beren funtzioa ez betetzearen arrazoiak, berriz, argiak dira: ez zaio arazori muintetik heltzen, koordinazio falta dago instituzioen artean, eta emakumeak artatzeko jarritako baliabideak epe motzerako planteatuak izateak eraginkortasunean zuzenki eragiten du.

Alarma pizteko ordua da, emakumeok gure eskubideen jabe egiteko ordua, jendartearen esparru guztietan sufritzen dugun indarkeriarik gabe bizitzekoa.

Baina gaur egungo *adabaki jartzearekin* posible ote da erasotzaileek beren jarrera aldatzea? Erasotzaileek jarrerotan mantendu artean, sozialki ondorioren bat izan beharko lukete, sozialki baztertu egin beharko genituzke eta egin dutenaren inguruan gogoeta egin beharko genuke, harik eta denon



arazoa den honi dagokion konponbidea jarri arte. Era horretan, gainera, jarrera matxistarik gabeko espazio libreak sortu eta berreskuratuko genituzke emakumeentzat. Erasotzaileei erantzun soziala emateko era ere bada.

Aurreko guztia irakurri duenak argiago izan beharko lituzke emakumeon kontrako indarkeriaren inguruko kausa, zio eta erantzunak zein prebenitzeko metodoak Arestian aipatu bezala, berririk gutxi

aipatu dugu; beraz, indarkeria patriarkalaren aferari aurre egiteko klabeak mahai gainean ditugu.

Emakumeok gure egoeraren aurrean jarrera aktibo eta zuzena hartu behar badugu ere, denon ardura da egun norbanakoak bizi ditugun harremanak aztertu eta jendarte justuago bat egiteko lana. Azter dezagun bakoitzak eta guztion artean zer dugun egiteko parekidetasunaren bidean.

azaroak

25


Emakumeenganako
indarkeriaren aurkako
nazioarteko eguna

**GIZON GUZTIEN
ARTEAN, EMAKUME
GUZTIEN ARTEAN,
ALDAKETA GUZTIEN
ESKU DAGO.**



Zebarri





GABONAK



Equen batzuen buruan etorriko dira Gabonak gure etxeetara eta honekin batera 2008.urteari ongi etorria egingo dioqu.

Aurten zer egingo duqu?urtero egiten duguna?hau da, betiko gastuak?hainbeste diru oparitan?hainbeste jana eta edana? Hobe esanda, sekulako dirutza gastatu denbora labur honetan.

Gure poltsikoetan zulo handi bat izango duqu eta ez duqu ahaztu behar Gabonak pasa eta gero urtarrileko iñoera datorrela!! Arqi daqo erosketak lehenago egiten hasiz gero, merkeago erosiko ditugula produktuak eta garaia heltzen denean estres gutxiago izango duqula eta ez duqula hainbeste gastatuko.

Epe labur honetan, kontsumoa handitzen den heinean, sortutako zaborra ere handitu egiten da. Alde batetik, zabor organikoa eta ezorganikoa eta beste alde batetik, kutsadura. Nahiz eta zabor organikoak hainbeste kalte egin ez, ezorganikoak eta kutsadurak badute zeresanik.

Arazo hauek guztiak kontuan hartu behar ditugu, birziklatzea oso garrantzitsua da eta equen hauetan are gehiago. Bestalde, gabonetako arqi famatuak ere hor daude, hainbeste arqi jartzea beharrezkoa al da? badakiqu kaleak girotzeko jartzen direla eta oso politak egoten direla gure herri eta hiriak baina, zenbaterainokoa izan behar du gastuak? Uste duqu gehiegizkoa dela, gutxiagorekin ere lor dezakequ. Horretaz gain, enpresa naqusiak hauetaz baliatzen dira gure arreta erakartzeko eta beren helburua bestelakoa izaten da.

Ez duqu esango dena txarra denik, ilusio handia daukaqu aspaldian ikusi ez ditugun senitartekoekin topo egiteko, umeen aurpegiak ikusteko, opor equen batzuk izateko.....

Horretaz gain, zozketak egoten dira esaterako, loteria, sakiak....eta zer edo zer tokatzen bazaigu primeran,ezta???





JOSTAILUA EROSTEA EZ DA JOLASA

Gabonak

hurbil daude eta sasoi honetan
jende askok jostailuak erosten ditu umeentzat.

Lehen gauzak desberdinak ziren. Izan ere, ez zegoen hainbeste jostailu; ume bakoitzak bakarrik jostailu bat edo bi zeuzkan eta ez zitzaien axola, pozik jolasten baitzuten. Gainera, batzuetan umeek ez zaukaten jostailurik pobreak zirelako edo etxean diru gutxi zeukatelako eta, horregatik, sokatiran, kartetan eta abarretan jolasten zuten.

Gaur egun dendetan jostailu asko dago: panpinak, kotxeak, ordenagailuak, play-stationak eta abar. Gurasoek jostailu hauek oparitzen dizkiete umeei, baina jostailuak erostea ez da erraza, ezta jolasa ere. Izan ere, guraso batzuek ez dakite zer erosi behar duten. Batzuetan, umeek jostailu asko nahi dituzte eta gurasoek ez dakite ezetz esaten. Horregatik, gurasoek jakin beharko lukete jostailu asko ezin dutela erosi hau exenplu txarra baita umeentzat.

Nire ustez, gero eta jostailu gehiago dago eta gehienak oso garestiak dira. Hala eta guztiz ere, gurasoek askotan, garestienak erosten dituzte edo umeek eskatzen dituzten jostailu guztiak erosten dituzte, Horregatik, umeak gero eta aldakorragoak dira.






IZENA DUEN GUZTIA OMEN DA

Mundu hau pertsoniaz beterik dago, mota guztietakoak eta garrantzi desberdinekoak. Gu saiatuko gara era xume batean gure ustez interegarrienak edo nagusienak direnak deskribatzen

EUSKAL JAINKOEN FAMILIA



MARI emea da eta bere arra SUGAAR da. Mari eta Sugaarren umeak MIKELATS eta ATARRABI dira. MUNDAKAKO PRINTZASA Sugaarren amorantea da eta biek ume bat daukate, JAUN ZURIA.

Atarrabiren emea EGUZKI AMANDREA da eta hauek hiru ume dauzkate: AMILAMIA, URTZI eta BASAJAUN. Eguzki alandrearen ahizpa ILARGI AMANDREA DA eta bere ama AMALUR da.

AMILAMIEN umea LAMIA da eta BASAJAUNAREN emea BASANDEREA da.



MARI

Mari jainkosa nagusia da. Izen asko aduzca: MARI, ANBOTOKO MARI, ANBOTOKO DAMA... Kobazulo batean bizi da eta mendi askotan bizi da: Anboton, Txindokin, Murumendin... Marik ile horia eta luzea dauka, oso dotorea da eta bere eskuan urrezko orrazia dauka.

Sorginak bere neskameak dira, Sugaar da bere arra eta bi ume daukate.



SUGAAR

Sugaar Marirren arra da, suge itxura dauka eta erraldoia da, lurr azpian bizi da eta ostiralero Lurretik irteten da eta Marirekin elkartzten da, horregarik ekaitzak egoten dira, Sugaarrek amorante bat dauka: Nundakako printzasa eta honekin ume bat dauka, Jaun Zuria da bere izena.



ATARRABI ETA MIKELATS

Mariren eta Majuren (Sugaarren) umeak dira. Mikelats gaiztoa da, Atarrabi, berriz ona. Etsairen ikasleak izan dira. Atarrabi itzalik gabe bizi da. Mikelatsek ekaitzak eta harriak botatzen ditu.



ORTZI

Ortzik beste izen asko aduzca: Urtzi, Ost... Euskal Herriko jainkoa da. Zeruan bizi da, ekaitzak sortzen ditu. Euskal hitz askorekin lotuta dago, adibidez: Ortzadar (Ortziren adarra), Ortzarri, Oskarbi, Oskorri, Ostegun, Ostirala.



LAMIAK

Lamiak edo amilamiak eureka zuloetan bizi dira, ile luzea eta urre koloretakoa daukate. Ederrak eta lirainak dira. Lamiek oiloen edo ahateen hankak daukate. Euskal Herriko zubiak Lamiek egin dituzte. Beti ilea orrazten ari dira erreketan.




EGUZKIA ETA ILARGIA

Eguzia eta Ilargia Amalurren alabak dira. Eguzkia edo Elia Jaungoikoaren begia da, Ilargia, berriz aurpegia. Baserriko atarietan eguzki Lorea babesteko jartzen dugu. Ilargia nekazaritzarekin, itsasaldiekin eta animaliekin lotuta dago.





BASAJAUN

Basajaun basoetan eta kobazuloetan bizi da. Bere gorputza ilez beteta dago eta bere buruko ilea eta bizarrak oso luzeak dira. Euskal Herriko Lehenengo nekazaria da, eta artaldeak babesten ditu. Ekaitzak edo otsoak etortzen direnean, oihuka hasten da artzainak abisatzeko. Basajaun Tartalorekin eta Gentilekin bizi da, eta denak erraldoiak dira.



GURUTZEGRAMA

8x8



1	2	3		4	5	6	7
8			9				
10					11		
12			13	14			
	15	16				17	18
19				20	21		
22			23				
24					25		

Goitik behera

1. Asmo finko
2. Imitagarri
3. Gar
4. Omen
5. Nafarroako herria
6. Txinako herritar
7. ... Laden buruzagi arabiarra
9. Krustazeo mota
14. Putzu
16. Lore
18. Azeri
19. Ibaietako pasabide
21. Sortu zintuena
23. Dago


Ezker-eskuin

1. Naizen honek
4. Euskal Irrati-Telebista
8. Amandre.
10. Bi gehi bat
11. Hitz ematea
12. Idi hitz-elkarketan
13. Ukan
15. Pozkor, alegera
17. Aluminioaren sinboloa
19. Izu
20. Sinu, halabehar
22. Biltzen diren kideko gauzen multzoak
24. Atomo kargatua
25. Jardun, eragon



Sartu zure erantzuna Euskaltegiko KUTXAN eta irabazi urtebeteko harpidetza LUMA aldizkarirako. Hiru harpidetza zozketatuko ditugu.





TXISTEAK



Hain zen lapur lodia ezen poliziak ezin izan zuen inoiz inguratu.

Zergatik lepekoek borobilak egiten dituzte etxeak? Txakurrek izkinetan txiza ez egiteko.

Zergatik lepekoek bata bestearen gainean bost telebista ipintzen dute? TELE5 ikusteko.

Gizon batek jatetxe batean esaten dio zerbitzariari:

- Gose naiz.
- Zer nahi duzu jateko?
- Tortilla bat mesedez.
- Nolakoa nahi duzu? Frantsesa ala espainiola?
- Berdin zait, ez dut berarekin hitz egingo.

- Ring-ring!!!
- 0001 al da?
- Bai.
- Ba..laster telefono barik geratuko zara.

Tomate batek beste bati.

- Joe, zelan loditu zaren!!
- Orduan bestea gorri ipini da.

Bi tomate doaz errepidetik eta batak besteari esaten dio:

- kontuz, kamioi bat!
- PLOF!
- Zer?
- PLOF!

Bi andaluziar desertutik doaz eta batak besteari dio:


- Begira boa bat!
- Gora ezkonberriak!!!





ERREZETAK

TXERRI SOLOMO GAZI-GOZOA



Osagaiak:

- Txerri solomo zati bat (kilo batekoa)
- 10 xerra hirugihar
- Olioa
- Gatza
- Barazkiak: - Bi porru - Hiru piper - Tipula bat - Bi baratxuri - Hiru azenario
- Sagar bat
- Mahats sorta bat
- Baso bat ardo zuri

Prestatzeko modua:

- Har ezazue solomoa eta bota gatz pixka bat.
- Hartu hirugiharra eta bildu okela.
- Zartagin batean gorritu okela hirugiharrarekin.
- Har ezazue lapiko bat, zatitu barazkiak eta gorritu ere. Gero okela hartu eta sartu lapiko barruan.
- Ondoren, bota ardoa eta ura lapikoan, egosi arte (gutxi gorabehera 20 minutuz)
- Azkenean, zabaldu lapikoa eta atera ezazue okela eta irabiagailua pasatu barazkiei.
- Saltsa horretan bota sagarra txikituta eta mahatsak. Utzi bost minutuz egosten.
- Okela hots dagoenean zerratan moztu, saltsa bota eta ON EGIN!

PIPER BETEAK

Osagaiak:

- Tipula bat
- 12 piper
- olioa
- hiru koilara gatz
- gazta
- esnegaina
- oilasko okel xehatua

Prestatzeko modua:

- Zartagin batean olio jarri eta ipiniko dugu oilasko okel xehatua, gazta eta tipula zatitua, frijitzeko.
- Gazta eta esnegaina irabiagailuarekin nahastuko ditugu. Saltsa amaitu eta gero botako dugu okelan.
- Piperrak hartuko ditugu eta beteko ditugu.
- Azkenean, erretilu batean ipiniko ditugu piperrak eta labean sartuko dugu dena hamabost minutuz 180°-tan.
- Ateratzen ditugunean prest egongo dira jateko.





EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

2

BAITU, BAIKARA, BAINAIZ (*)

Bait partikula (*beit* zubereraz, testu zaharrenetan izan ezik) aditz laguntzailearen edo trinkoaren aurre-aurrean kokatzen da. Iparraldeko tradizioan eta Hegoaldeko Nafarroako testuetan, zenbait salbuespen baztergarri alde batera utzirik, aditzari atxikirik agertzen da beti, lehenengo testuetatik gaurdaino.

Sartaldean, *bait* gutxiago erabiltzen da, baina aski ohikoa da XVIII. mendean gero literatura gipuzkeran eta mende honetako zenbait idazle bizkaitarren; *bai* aldaera batez ere mende honen lehen erdian erabili zen, mendebalean, jakina.

Mendebaleko testu zaharretan *bait* atxikirik agertzen da Mendiburu eta Ubillosengan, baina marratxoan loturik Iturriagarengan eta berezirik Iztuetarengan. Dena dela, *bait* atxikirik agertzen duten agerraldiak nagusi dira, alde handiz XIX. mendean bigarren erdialdean. Mende honetan ere 1900-1970 epean *bait* atxikia da sartaldean gehien erabiltzen dena: *Orotariko Euskal Hiztegia*-ko datuetan, 1900-1950 epean, *bait* atxikiaren 653 agerraldi daude, 10 *bait* bereziarenak eta 34 *bait* marratxodunarenak, eta 1950az geroko testuetan, 1161 *bait* atxikiarenak, 390 *bait* marratxodunarenak eta 93 *bait* bereziarenak. Ikusten denez, *bait* bereiz idaztea guztiz berria da (azken 25 urteotako kontua, batez ere) eta Hegoaldeari soilik dagokiona. Gainera, idazkera berri horrek ez du usadio zaharra baztertu Hegoaldean, *bait* atxikia ere ikusten baita, batez ere ereduzko idazleen artean.

Bestalde, *bait*-en erabil moldea ezin da parekatu ezezko esaldietako *ez* partikularenekin: *ez* bereiz XVIII. mendean erdialdeaz gero aurkitzen da Iparraldeko nahiz Hegoaldeko testuetan, eta erabat ohikoa da XIX. mendean bukaerarako.

Bait atxikirik idazteari hainbatek ikusten dion eragozpenik larriena, aditzari lotzean gertatzen diren letra ezabatzeak edo aldaketak dira. Baina lotura legeok aski errazak dira:

baitu baikara

bainaiz baihaiz

bailuke baitzuen

baitabiltza baitator

baitoaz baikentozke

baikintuen bainator

bainenbilen baihaiz

baihintzen bailetorke

bailizateke e.a.

(*) *Oharra*: Arau honek lehenetik harturiko erabakia zehazten/aldatzen du. Ikus *Euskera* XVII, 1972, 168-173. orr.
– 11 – *Baitu, baikara, bainaiz*

Literatura tradizioko usadioa ez da ezin aldatuzko legea, baina tradizioko batasuna hausteko arrazoiek pisuzkoak izan behar dute, kalteak onurak baino handiagoak izan baitaitezke bestela. Hortaz,

Euskaltzaindiak hau erabakitzen du:

***Bait* partikula, kasu guztietan, aditzari atxikia idatz dadila: *bainaiz*, *baikara*, *baitoaz*, e.a., eta ez **bai(t) naiz*, **bai(t) gara*, **bai(t) doaz*, e.a.**

Bibliografia: *Orotariko Euskal Hiztegia*, s.v. *bait*. (Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)



EUSKALTZAINDIA

15

Zebarri



Aurten Etxebarriko euskaltegian:

Este año, en el Euskaltegi de Etxebarri:



Ordenagailu eta internet bidezko euskarazko autoikaskuntza



***Sistema de autoaprendizaje de euskera
por ordenador e internet***

Etxebarriko Udalak diruz lagunduak - Subvencionados por el Ayuntamiento de Etxebarri



Bekosolo Parkea z/g
(Etxe horia/Casa Amarilla)
Tel/Fax: 94 426 28 02

etxebarri@euskalnet.net



**ULIBARRI
EUSKALTEGIA**